



EUSKARAREN EGUNA 2023:

ALDARRIKATU, GOZATU ETA ELKARTU

Abenduaren 3an euskaltzaleok badugu elkargunea arnasteko, batzeko, indartzeko eta ospatzeko. Artziniegan izango dugu hitzordua, historiaz eta artez beteriko herrian, 2016an hasitako bidean eskualdea josten baitarrai **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**.

Urte betea joan da euskalgintzan, bai Euskal Herrian eta baita Aiaraldean ere. Oldarraldi judizialari indartsu erantzun diogu eta gurean *errotulki gorria* atera dugu. Hauteskundeetan euskara mahai gainean jarri dugu eskaintza aztertuz, konpromisoak eskatuz eta lortuz. Futbola euskalduntzeko kanpainan darraigu, gazteen ahotsa entzuten, gurasoei transmisioaren garrantzia gogoratuz, ikastetxeekin elkarlanean... Hamaika proiektu eta ekimen, eta etorriko direnak!, euskararen alorra borbor den honetan: hizkuntza ereduak, pantailetan euskara, ikasleen euskara maila, hizkuntza eskubideak...

Komunitatea batu eta euskara bultzatu: xede horrekin hasi zen **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua** 2016an eskualdean Euskararen Eguna elkarrekin ospatzeko jaia antolatzen. Amurrion "aterkipean" hasitako bidaiak Urduña, Laudio, Orozko, Luiaondo eta Arakaldo izan ditu geltoki. Orain, Artziniegaren txanda iritsi da. Iaz Artziniegako hiribilduaren sorreraren 750. urteurrena ospatu zuten herritarrek. Historiaz betea, eskualdeko museo gehien dituen herria ere bada Artziniega. Alde zahar ikusgarria eta inguru natural ederra du, bi elementuak batzen dituen Artea eta bere Santutegia ahaztu barik. Ondare ezinbestekoa gure eskualdea barrutik ezagutzeko.

Ohi legez, adin guztietako publikoarentzako eskaintza dakar Aiaraldeko Euskararen Egunak eta inoiz baino lankidetzazabalagoarekin, antolakuntzan lagun izango baititugu *Ganzorrotz Mendi Taldea, Artzikirola Elkartea, Bizindar Sokatira Taldea, Builaka Batukada, Sorginlarren, Kirikiño, Otsati Elkartea,...* Elkarre guzti hauen inplikazioa eskertu eta balioan jarri nahi dugu, baita egunean bertan lanean izango diren bolondres guztien ere. Bestetik, Artziniegako Udalaren inplikazioa, eskaintako laguntza, erraztasunak eta elkarlana eskertu behar dugu. Ahantzi gabe, eskualdeko gainerako 8 udalerriek ere beren ekarpena egin dutela. Poztekoa berriz ere.

Abenduaren 3rako berotzeko aurten ere **Memealdia** martxan dugu, euskarazko memeen lehiaketa. Umorea, sormena eta euskara eskutik. Parte hartzeko gure webgunean dituzue argibideak eta istagrameko memealdiaren kontuan ikusgai. Ekimenaren sari banaketa eta festa abenduaren 1an egingo dugu Orozkoko Jentilzulon: musika, bakarrizketa, txapa banaketa... Ez galdu!

Bestetik, erronka egin diegu Aiaraldeko adin guztietako ikasleei: **Euskararen Artea**. Euskara abiapuntu eta arteak dituen ate guztiak irekirik, zer sortuko dute gure haur, gaztetxo, nerabe eta gazteek? Abenduaren 3an Artziniegan erantzuna.

Egitarauan kirola, jolasak, mendia, jaia, musika... osagarririk ez da faltako parte hartu, kantatu, dantzatu eta euskaraz gozatzeko. Aiaraldeko euskaldunon komunitatea trinkotu, herri eder, inguru ikusgarri eta giro ezin hobean.

Frontoiaren aterpean izango dira ekintzak eta autobus zerbitzu bat ere izango da aukeran. Bazkarirako tiketak non lortu, mendi bueltaren ibilbidea eta bestelako zehaztasun guztiak gure webgunean aletuko ditugu.

Euskararekin eta euskaraz gozatzeko unea da.

Aiaraldea euskaraktibatu!

Abenduaren 3an denok Artziniegara!

Gehiago jakiteko, jarraitu gaitzazu::

<http://aiaraldekoeuskalgintza.eus/>

<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskalgintzaKontseilua>

Jaiko egitaraua:

<https://labur.eus/Artziniegan>

Sare sozialetan:

youtube

facebook

twitter **@eusk_kontseilua**

instagram **@aiaraldeko_euskal**

Artziniegan, 2023ko azaroaren 23an

CHRISTIAN ALEMANY ARTETA

Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua Elkarteko ordezkaria